

# ku-ku!

haurrekin hitz egiten hasteko



# ku-ku!

haurrekin hitz egiten hasteko



ORDIZIAKO  
UDALA  
Euskara Zerbitzua

- Argitaratzailea:
  - Egokitzapenak: Patxi Zubizarreta
  - Egilea: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
  - Lege gordailua: "hau guk jarriko diogu"
  - Inprimaketa: ORVY
-



**Semearekin edo alabarekin euskaraz egin nahi al duzu txiki-txikitatik?**

**Hementxe duzu horretarako laguntza!**

Ku-ku liburuxka argitaratu du Ordiziako Udaleko Euskara Sailak, herriko gurasoek aukera izan dezazuen hizketan hasteko garaian dauden zuen seme-alabekin euskaraz egiteko.


Honako liburuxka lau zatitan banatuta dago. Hasieran hiztegi labur bat dator, hainbat ataletan banatuta; ondoren, umearekin aritzean egiten ditugun akats ohikoenak jaso ditugu; eta, amaiera aldean, zuzen seme-alabekin goatzeko jolasak nahiz abestiak urkituko dituzue.

Ahozko gure ondarea aberasten duen besteren bat (dela hitza, dela esamoldea, dela hitz-jolasa edo abestia) ezagutzen baduzue, adierazi, mesedez, Euskara Sailean -Herritarren Arretarako Udal Bulegoa; 943 80 56 22; euskara@ordizia.org-, liburuxka honen hurrengo edizioak osatzea baitugu helburu.

**Umetan erraza da euskara ikastea. Lagundu iezaiezu!**

# urkibide

- **HIZTEGIA** ..... 5 orr.
  - Ekintzak ..... 6 orr.
  - Izenak eta adjektiboak ..... 8 orr.
  - Onomatopeiak ..... 10 orr.
  - Gorputz atalak ..... 11 orr.
  - Animaliak ..... 12 orr.
  - Esamoldeak ..... 13 orr.
- **HORRELA EZI** ..... 16 orr.  
Zuzentzekoak
- **HAURREKIN JOLAS EGITEKO** ..... 19 orr.
- **ABESTU!** ..... 32 orr.



# hiztegia





## ekintzak

---

- Agur-agur: agur egin
- Apatx egin: eseri
- Apapa joan: kalera joan, paseatzera joan
- Arrekonkon, arrelepo: bizkar gainean ibili
- Fu-fu egin: putz egin, janari beroari eta
- Jolasgura/eztulgura/barregura
- Kausk: kosk egin
- Kili-kili egin, kilikiliak egin: kilimak egin
- Kuku egin: agertu eta ezkutatu
- Lau hankatan ibili: katuka
- Lolo joan/egon: lotara joan, egon
- Magalera etorri: altzora
- Mainak egin | eduki: negar zotinak (itxurazkoak?) egin
- Maitte-maitte egin: laztandu
- Pa eman | bota: musu eman/bota
- Piririkan ibili: bilinbolaka, txiringolaka ibili



- Plantak egin: itxurak egin
- Punba | punbala: erori
- Pupua eduki: minez egon
- Ttiki-ttaka: oinez joan
- Txalo-txalo egin: txaloa jo
- Txista egin: injekzioa jarri
- Txingurritu: hanka, eskua txingurritu
- Txipli-txapla ibili: uretan jolasten
- Txirrist egin: irristatu
- Txizagura | kakagura izan/eduki
- Txurrut egin: edan

### **Erabil itzazu. Hona hemen zenbait adibide:**

---

- A ze abelera (dena nahas-mahas dagoenean)
- A ze kuxidadea (dena nahas-mahas dagoenean)
- Apatx egin ahulkian!
- Eman pa aifatxori
- Politte, joango gara apapa?
- Pu-pu egin al duzu?

# izenak eta adjektiboak

---

- Aingerutxo: ume zintzoa
- Barrabasa: ume bihurria
- Barrabaskeria: bihurrikeria
- Begiluzea: kuriooa
- Bobolioa: tuntun samarra
- Gajoa: koitadua (neska)
- Gixajoa: koitadua (mutila)
- Kaka: kaka / zikinkeria ("utzi hori, kaka da")
- Kika: esneko hortza
- Kokoloa: gixajoa/txokolatea
- Kuttuna: oso maitea
- Lasakapotoa: alferrontzia
- Maitea, bihotza, laztana: umeari deitzeko hitz goxoa
- Mamarroa: mamua, umeak beldurtzeko
- Mainoso: negartia, plantak egiten dituen
- Mitxina: katua







- Mizkina: jaten arazoak ematen dituena
- Muxumerke: edozeini musu ematen diona
- Muturzikina: aurpegia zikin duena
- Narratsa: zikin samarra
- Neskamotza: neska ederra, handia
- Ninia: umetxo
- Pitxin | pitxintxo: umeari deitzeko hitz goxoa
- Sorgina: bihurria
- Totoa: txakurra
- Tripazakua: janzalea
- Txatxala: petrala
- Txirikorda: iletxirikorda
- Umemoko: ume-umea
- Zalapartero: zarata handia ateratzen duena
- Zilipurdika: itzulipurdika

# onomatopeiak



- Atxis egin: doministiku egin
- Burrun-burrin: autoa, ibilgailua
- Dan-dan-dan: atea jo
- Dar-dar egon: hotza egon edo ikaraz egon
- Dilin-dalan | tilin-talan: kanpatak
- Dinbi-danba: kolpeka
- Et-et-et: kontuz, ez
- kask-kask (kosk-kosk): jo atea
- Kili-Kolo egon: erortzeko zorian
- Plausta: zerbaite erortzean ateratzen den hotsa
- Punba egin | punba(la) egin: jausi
- Purrut: puzkarra
- Tas-tas egin: ipurdikoa eman
- Tirrin-tirrin: tinbrea
- Trakatan-trakatan: zaldizka



- Tuju-tuju: eztula
- Zarra-zarra: ...ari du euria
- Zia-zia: trenak



## gorputz atalak

---

- Kika: hortza, hagina
- Popolina, potxolina, larrosatxua: alua
- Tirrina: zilborra
- Titia: bularra
- Txilibitua: zakila




# animaliak

- Arrantza: astoak egiten du
- Arre-arre: zaldiari, astoari...
- Au-au: txakurra
- Bee, bekereke: ardia
- Irrintzi: zaldiak egiten du
- Kir-kir: kilkerra
- Kokoroko: oiloa
- Kua-kua: ahatea
- Ku-ku: kukua
- Kukurruku: oilarra
- Kurrin-kurrin: txerria
- Marruma: behiak egiten du
- Miauka: katuak egiten du
- Mix-mix: katu etor dadin





- Miauka: katuak egiten du
- Mix-mix: katua etor dadin
- Purra-purra: oiloei deitzeko
- Trakatan-trakatan: zaldia
- Txio-txio: txoriak egiten du
- Zapi: katua uxatzeko hitza



## esamoldeak

---

Hona hemen gure umeekin erabiltzen ditugun zenbait esamolde, bazkaltzeko orduan, lotarakoan... Erabil itzazu, ikusiko duzu nola erantzuten duten.

- ez harrotu!
- txintxoa izan: esanekoa izan
- ez izan astoa!





- a ze ipurdikoa hartuko duzun!
- egin zintz! mukiak kendu
- etorri amaren magalera: altzora!
- atzekoz aurrera jantzi duzu nikia!
- azpikoz gainera jantzi duzu jertsea!: barruzkoz kanpora jantzi duzu jertsea
- hankutsik ez ibiltzeko ba!
- egongo ote zara geldi!
- zer duzu negarrez?



## bazkaltzeko ordua!

- Bapo | papo: amaitu dela esateko
- Baso bat ur
- Dzanga-dzanga edan: edatearen onomatopeia
- Grauska-grauska jan: jatearen onomatopeia

- Kokoa: arrautza
- Kokoloa: txokolatea
- Laranja ura: zukua
- Mama: ura edo edatekoa
- Nenea: esnea
- Papa: ogia
- Txitxia: haragia



- Goseak/egarriak/hotzak egon
- On egin (deizuela)
- Ogia kontrako eztairitik joan zait
- Korroskadarik ez egin mahaian
- Txorrotarrada bat hartuko nuke
- Mizkina zara, gero! (jateko arazoak dituena)
- Poliki jan beharra dago
- Papo egin duzu?

# horrela

# ez!



Hona hemen haurrekin egin ohi ditugun akatsik behinenak. Saiatu zuzentzen!



## Erdarazko egiturak baztertu

**EZ**



**BAI**

- A lolo joango gara? .....**Lo egitera joango gara?**
- ¡Qué rico!.....**Bai gozoa! Ze gozo!**
- Umearen zorionak dira.....**Umearen (urtebetze-) eguna da**
- Mikelek jo egin dit.....**Mikelek jo egin nau**  
**Mikelek ostikada eman dit**
- Nik de fresa nahi dut.....**Fresazkoa edo mailukizkoa**  
**(mailukiduna) nahi dut**
- Laztana bota siesta!.....**Laztana egin lo kuluxkatxoa**
- Zer mozorrotuko zara?.....**Zerez/zertaz/nola mozorrotuko zara?**

**Erdarazko txikigarrik ez erabili:**



- Egingo al dugu lolitos bat? ..... Lo egingo dugu?  
Egingo al dugu lotxo bat?
- Hartu txupetito/bolsita ..... Hartu txupetetxo/poltsatxo

**Hitzei -a artikulua jarri:**



- Jango duzu bokadillo? ..... Jango duzu bokadilloa?
- Nahi duzu yogur? ..... Nahi duzu jogurta?

# haurrekin jolas egiteko



laztana, jolasean egingo dugu?

Egingo dugu ezkutaketan?

Harrapaketan ibiliko gara?


Egingo dugu futboleant?




# atzamarren abentura



Honek egurra  
bildu zuen...



Honek sua  
piztu zuen...



Honek janaria  
erosi zuen...



Honek janaria  
prestatu zuen...



Eta potolo-potolo honek  
dena jan zuen...





## Umeari hortza erortzen zaionean

Esne-hortza (txantxurra) burkoaren azpian utzi edo teilatura bota eta hauxe esan:



**Maritxu teilatuko  
gona gorridune  
eutsi hagin zaharra  
eta ekarri berrie**




# Ikusi-makusi

- Ikusi, makusi
- Zer ikusi?
- Ikusten dut, ikusten dut, gauza bat,
- **T** letrarekin hasten dena eta **A** letrarekin bukatzen dena. Zer da?

## - Txirrista!

"Uko!" esaten da erantzuna okerra baldin bada, eta "Etsi!" amore ematean.



# Zotz egitekoak

Harriola- marriola,  
orratza zorrotza,  
xixta gaitza,  
hari txarra,  
tira-bira,  
zirrin-zarran,  
eta zart!





Senda,

senda, miriku



Senda, senda, miriku,

Oilo kaka, xiriku.

Amen, zu hor eta ni hemen.

# Dingilin-dangalan

Dingilin-dangulun eragidazu,  
laster hasiko natzaizu,  
laster hazi eta ongi lagundu,  
mesede izango duzu.



# Xango-mango



Xango-mango,  
haurra nongo?  
Ona bada etxerako,  
gaixtoa bada kanporako.

# Amona mantangorri

Amona mantangorri,  
zuri ala gorri,  
hegan!



# Adarrak atera



Adarrak atera,  
bestela putzu handira.

Adarrak atera,  
bestela putzu handira.

# Hezur, hezur



- Hezur, hezur.
- Mami, mami!
- Zeineri?
- Ederrenari.
- Zein da ederrena?
- Kattalin Graziosonekoari.

# Lotxo bat eta lotxo bi

Lotxo bat eta lotxo bi,  
ama goxoak ekarri,  
eme guztieri bana eta bina,  
eta zuretzako hamabi.



# abestu!








Pin tto pin tto gu re txa ku  
rra da ta Pin tto pin tto  
be rei ze na du zu ri bel tza  
da ta ez du kos kae gi ten  
be gi bat ix ten du jo las tu nahi ba  
du



Pintto, pintto  
gure txakurra da ta  
Pintto, pintto  
bere izena du  
zuri beltza da ta  
ez du koska egiten  
begi bat ixten du  
jolastu nahi badu

# Ran roberra



Uztaia gora gora  
lurretik zerura  
orain alde batera  
ta gero bestera  
ta behera, behera, behera  
ta behera behera bai  
uztai barruan preso  
gelditu naiz orain  
ran roberra po, po, po, po, po, po, po, po  
ran roberra po, po, po, po, po, po



# Umea altzoan dagoela abesteko



Din dan nor hil da Peru za pa ta ri a  
zer egin da u pe ka tu au zo ko txakurra ur ka tu  
hori baino ez ba dau e gin behar ko ja ko par ka tu

Din dan  
nor hil da  
Peru zapataria  
Zer egin dau pekatu  
auzoko txakurra urkatu.  
Hori baino ez badau egin  
behar ko jako  
par-ka-tu





# txalopin txalo



txa lo pin txa lo txa lo pin txa lo ka tu txo a miz pi ra



gai ne an da go ba da go be go be go ba da go



noren za pa ta txu a ri be gi ra da go

txalopin txalo

txalo ta txalo

katutxo a mizpiraren gainean dago

badago bego bego badago

**noren** zapatatxuari begira dago



# Arre arre mandako



Arre arre mandako  
bihar Tolosarako  
etzi Iruñarako  
handik zer ekarriko?  
zapata ta gerriko!  
hauek zeinentzako?  
zuretzako!



# Eragiozu



Eragiozu eskutxuari  
behin batera  
ta gero bestera



# kinkirrinera



ala kinkirrinera

ala xamurrera

"hauraren izena" plaza berriko

jira hadi beste aldera

zzzz



Gainera, umeentzako abesti  
aproposak aurkituko dituzue  
honako CD hauetan:



Izena: Bolona-molona

Egilea: Imanol

Argitaletxea: Elkar



Izena: Xixupika

Egilea: Txirula Mirula

Argitaletxea: Elkar



Izena: Doctor Do Re Mi

Egilea: Oskorri

Argitaletxea: Elkar





Izena: Gure mundu txikitik

Argitaletxea: Elkar



Izena: Egizu lo (lotarako kantak)

Argitaletxea: Elkar



Izena: Bulun bulunka

Egilea: Olatz Zugasti

Argitaletxea: Elkar



Izena: Behin bazen

Egileak: Koldo Amestoy  
Bixente Martinez

Argitaletxea: Elkar



Izena: Haur-jolasen  
abestiak III

Argitaletxea: Xangorin



Izena: Gurekin hegan

Egileak: Txirri, Mirri eta Txiribiton

Argitaletxea: Elkar



Izena: Patata patata  
Egileak: Pirritx eta Porrotx  
Argitaletxea: Katxiporreta



Izena: Kukuketan  
Egilea: Xirula mirula  
Argitaletxea: Elkar



Izena: Urrezko giltza 1  
Argitaletxea: Erein



Izena: Txikia izanik...  
Argitaletxea: Elkar

## Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero honako liburu hauetan aurki dezakezue:

- *Haur hizkera*. Joseba Aurkenerena, Covadonga García, Jon Zelaia (Gero argitaletxea).
- *Ahozko literatura: genero txikiak*. Hainbat idazle, Gauontza sorta. Labayru ikastegia.
- *Ume hizkuntza eta lexikoa*. M<sup>o</sup> Eugenia Markaida.
- *Umeen berbak direla eta*. Iñaki Gaminde.
- *GALDEZKA* liburuaren atal bat: *umeen kontuak* (IVAP).
- *Betiko jolasak*. Oiartzungo Udala.
- *Ume txikientzako kantu eta jolasak*. Bergarako Udala, 2001.
- *Kukuketan, jolaserako kantak*. Xirula-mirula, 2005.
- *Kantu eta jolasak*. Debagoieneko mankomunitatea, 2005.
- *Euskal jolasen bilduma (I eta II)*. Urtxintxa eskola.



